


Getxo >MEETING<



Abenduaren 13ko GetxoMEETINGa EKITEKO HAUSNARKETA

Amaitu da urtea! Abenduaren 13ko Getxo MEETINGean (urteko azkenengoan) azaleratu ziren gakoak berri emango dizugu, atzera begiratzeko eta lortutakoaren garrantzia nabarmentzeko baliagarria izango zaizulakoan.

2019ari beharrezko kemenaz ekiteko motibazioa lortzeko modua da.

Beste ezer baino lehen, hona hemen azaleratu zen gauza bat: **Gelditzea garrantzitsua da. Hausnartzeko geldialdiek on egiten dute.** Gainera, ahalik eta gehien ekoiztearen mitoari balio handiegia ematen zaio. Nora jo pentsatzeko uneak hartzen ez badira, nola joan gaitezke nahi dugun norabidean? Egia da, enpresa bat baduzu, zu bazara zuzendaria eta gainera ekoizpen lana ere zuk egiten baduzu, burua eta agenda hainbat sailetan (ekoizpena, sail komertziala, gerentzia, administrazioa...) zatitu behar dituzu. Kontrakoa norbere burua engainatzea da.

Ariketak

Egindako ariketa gakoak proposatzen dizkizugu. Hala, 50 minutuan, bakarrik edo zure taldearekin batera berrikusi ahal izango duzu 2018an bizitakoa, eta 2019. urtea prestatzen hasi ahalko zara.

1) Egin ezazu 2018an **lortutako guztiaren** zerrenda bat, **gauza txikiak zein handiak**. Ukigarriak zein ukiezinak.

2) Beste zerrenda bat: **Zertaz jabetu naiz?** (Nire jardueraz, nire jarreraz, merkatuaz, lehiak, eskaintzen ditudan zerbitzuez, horiek eskaintzeko moduz, nire prezio politikaz, denboraren kudeaketaz, lan egiteko nire moduz...)

3) Zeintzuk dira 2019rako **nire ametsak, nahiak eta beharrak?** Egin zerrenda bat

4) Begira ezazu **ametsen zerrenda hori**: Egiatzatu ea apalegiak diren edo, alderantziz, lortzeko ezinezkoak diren. Amets xumeegiak idatzi badituzu, kendu beldurraren esku-frenoa eta gehitu desira interesgarriagoak zerrendari.

5) **Orain, egin helburuen zerrenda bat** (zehatzak, neurgarriak, lor daitezkeenak eta xede horretarantz joaten lagunduko dizutenak). Diru-sarrerak sartuko badituzu, idatzi zenbateko bat. “Denbora gehiago eskainiko diot ... egiteari” badiozu, zehaztu astean edo egunean zenbat ordu izango diren.

Oharra: Baliteke ekoizpen lanarekin harreman zuzenik ez duten baina lan horretan eragin positiboa duten helburuak agertzea. Nire ametsa “lanean zoriontsu izatea” baldin bada, hau da, zerbait abstraktua eta neurtzeko zaila, helburu gisa jar nezake amets horretara gerturazten lagunduko didan zerbait, betiere zehatza izango dena. 2019a bukatzean lortu dudan ala ez egiaztatu ahal izango dudan zerbait: “40 minutuz paseatzea goizero lanera joan aurretik”. Egia da helburu horrek ez duela lan egitearekin zuzeneko loturarik, baina lanean zoriontsuago izatea ahalbidetzen du, edo norbere osasuna, oro har, hobetzea. Bada, horrek hobeto lan egitea eragingo dit.

Ausartzen zara bost galdera horiei erantzuten? Biharko uzteko tentazioa baduzu, adi, amarru bat da eta: Amets egiteak beldurtzen zaitu, edo lortu beharreko helburuak idatziz jasotzearen konpromisoa saihesten ari al zara? Beldurtzen bazaitu ere, egin ezazu.

Eta bestela, urteko lehenengo Getxo MEETINGera etortzeko aukera duzu, honako lan garrantzitsu honen inguruan lanean jarraituko dugu eta: 2019rako estrategia. Urtarrilaren 17an izango da. Eman izena hemen: getxopro@getxo.eus